# Bestelako Xedapenak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

**6528**

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2011an euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzetara biltzeko deia egiten duena.

Euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen martxoaren 18ko 50/2008 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera (2008ko apirilaren 11ko EHAA), diru-laguntza horietarako deia urtero egingo da ebazpen bidez. Hori dela eta, honen bidez egiten da 2011ko diru-laguntzetarako deia.

Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen 1/2010 Dekretuaren 15.5 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuz, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari dagokio bere eskumen-esparruari dagozkion diru-laguntzetarako deialdia egitea.

Horren ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Helburua.

Deialdi honen helburua 2011 urtean euskal etxeei, etxeon federazioei eta konfederazioei emango zaizkien diru-laguntzetara biltzeko deia egitea da, martxoaren 18ko 50/2008ko Dekretuan araututako baldintzetan.

***Bigarrena***.– Diru-laguntza jaso dezaketen jardueren denbora eremua.

Deialdi honetara biltzen diren programa eta jarduerak 2011. urtean gauzatu beharko dira eta abenduaren 31rako amaitu beharko dira.

***Hirugarrena***.– Diru-laguntzaren xede izan daitezkeen gastu eta jarduerak.

1.– Ohiko gastuak eta jarduerak antolatzeko gastuak. IV. kapitulua: diruz lagundu ahal izango dira funtzionamendu gastuak eta baita irabazi asmorik gabeko urteko programa eta jarduera zehatzak ere, honako jarduera eremu hauetan:

– Gazteria.

– Emakumea.

– Kanpo irudia eta komunikazioa.

– Memoria historikoaren berreskurapena.

# Otras Disposiciones

**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

**6528**

RESOLUCIÓN de 15 de diciembre de 2010, del Secretario General de Acción Exterior, por la que se convocan subvenciones a los Centros Vascos-Euskal Etxeak para el año 2011.

El Decreto 50/2008, de 18 de marzo (BOPV de 11 de abril de 2008) por el que se regula el régimen de subvenciones a los Centros Vascos-Euskal Etxeak, establece en su artículo 8 que dichas subvenciones serán convocadas anualmente mediante la correspondiente Resolución, por lo que procede convocar las ayudas para 2011.

Atendiendo a lo establecido en el artículo 15.5 del Decreto 1/2010, de 12 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, corresponde al Secretario General de Acción Exterior realizar la convocatoria de las subvenciones relativas a su área competencial.

Por lo tanto,

RESUELVO:

***Primero***.– Objeto.

La presente Resolución tiene por objeto convocar, para el año 2011, ayudas en forma de subvenciones a los Centros Vascos, Federaciones y Confederaciones de Centros Vascos-Euskal Etxeak en las condiciones reguladas en el Decreto 50/2008, de 18 de marzo.

***Segundo***.– Ámbito temporal de las actuaciones subvencionables.

Los programas y actividades que se acojan a la presente convocatoria habrán de materializarse durante el ejercicio 2011, debiendo estar culminados en todo caso a 31 de diciembre.

***Tercero***.– Gastos y actuaciones subvencionables.

1.– Gastos corrientes y organización de actividades. Capítulo IV: serán subvencionables los gastos de funcionamiento, así como la realización de programas anuales o actividades concretas sin ánimo de lucro preferentemente en los siguientes ámbitos de actuación:

– Juventud.

– Mujer.

– Imagen exterior y comunicación.

– Recuperación de la memoria histórica.

Euskal etxeen funtzionamendu eta mantentze gastuak (langileen soldatak, gizarte segurantza, bidaia gastuak, ura, argindarra, berogailua, zergak, aseguruak, alokairuak eta antzekoak) diruz lagundu ahal izango dira baina ehuneko berrogeita hamarreko (% 50) mugarekin.

2.– Azpiegitura eta ekipamendu gastuak. VII. kapitulua: diruz lagundu ahal izango dira euskal etxeetako azpiegitura eta ekipamendu gastu hauek:

– Katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.

– Hesi arkitektonikoak kentzea.

– Euskal etxeen egoitza berriak eraikitzea.

– Gazteentzako guneak egokitzea.

– Gazteen eta emakumeen jarduerak aurrera eramateko teknologiak sartzea.

3.– Kapitulu bakoitzean esleitzen diren dirulaguntzen gutxieneko kopurua 300 eurokoa izango da. Zenbatekoa zehazteko ezarritako formula erabilita ateratzen den zenbatekoa gutxieneko zenbateko hori baino txikiagoa ateratzen bada, ez da dirulaguntzarik emango.

4.– IV. kapitulurako emango diren diru-laguntzen gehieneko kopurua 50.000 euro izango da.

***Laugarrena***.– Baliabide ekonomikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko aurrekontuetan berariaz ezarritako aurrekontu kredituetatik deialdi honetarako gorde diren diru baliabideak milioi bat laurehun mila berrehun eta hirurogeita zortzi (1.400.268) euro dira guztira, honela banatuta:

IV. kapitulurako: 970.873 euro.

VII. kapitulurako: 429.395 euro.

Ebazpen honetan aipatzen den deialdiak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako gastu espedienteen aurretiko izapidetzeari heltzen dio 2007ko apirilaren 26ko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren aginduan araututa dagoena betez. Diru-laguntza horiek emango dira, betiere, 2011ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

***Bosgarrena***.– Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

Deialdi honetako diru-laguntzetara biltzeko eskabideak I. eranskinean edo www.euskadi.net web orrian jasotako ereduan egingo dira.

Los gastos subvencionables de funcionamiento y mantenimiento de los Centros (costes salariales de personal, seguridad social, viáticos, agua, luz, calefacción, impuestos, seguros, alquileres y otros análogos) no podrán ser superiores a los gastos en actividades, y tienen el límite del 50% de la subvención concedida.

2.– Gastos de infraestructura y equipamiento. Capítulo VII: serán subvencionables los gastos de infraestructura y equipamiento de los Centros, priorizando los relativos a:

– Arreglo de desperfectos producidos por catástrofes.

– Eliminación de barreras arquitectónicas.

– Nueva construcción de sedes de centros vascos.

– Adecuación de espacios para jóvenes.

– Introducción de tecnologías para el desarrollo de actividades de jóvenes y mujeres.

3.– El importe mínimo de las subvenciones concedidas por Capítulo será de 300 euros. En el caso de que de la aplicación de la fórmula dispuesta para la determinación de importe resulte una cantidad inferior, no se concederá ayuda.

4.– El importe máximo de las subvenciones concedidas por Capítulo IV será de 50.000 euros.

***Cuarto***.– Recursos económicos.

El importe global de los recursos económicos destinados a la presente convocatoria, procedentes de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2011, asciende a la cantidad de un millón cuatrocientos mil doscientos sesenta y ocho (1.400.268) euros, distribuyéndose del modo siguiente:

Para Capítulo IV: 970.873 euros.

Para Capítulo VII: 429.395 euros.

La convocatoria a que se refiere la presente Resolución se acoge a la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regulada en la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por lo que la concesión de las ayudas que se convocan queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del ejercicio 2011.

***Quinto***.– Lugar y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas que se convocan, se formularán en el modelo normalizado que figura como anexo I y que está también a disposición de los interesados y en la página web: www.euskadi.net.

Eskaerak helbide honetara zuzendu eta igorriko dira: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Nafarroa kalea, 2, 01007 Vitoria-Gasteiz, edo Euskadik dituen ordezkaritzetara, ordezkaritzak dituzten herrialdeetan.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran– adierazitako beste bideak erabiliz ere aurkeztu daitezke eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea 2011ko otsailaren 28an bukatuko da.

***Seigarrena***.– Eskabideak baloratzeko eta aukeratzeko irizpideak.

Martxoaren 18ko 50/2008 Dekretuaren 11. artikuluan aurreikusitako Ebaluazio Batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan eskabideak baloratzeko eta aukeratzeko:

A) Ohiko gastuetarako eta jarduerak antolatzeko gastuetarako (IV. kapitulua):

1.– Euskadirekiko eta beste herrialde batzuetan errotutako euskal gizataldeekiko harreman sozial, ekonomiko eta kulturalak indartzea, Aholku Batzordeak onartutako lau urterako Planarekin bat etorriz (30 puntu gehienez):

a) Inguruko euskal etxeekiko harremanak – 10 puntu gehienez.

b) Euskadirekiko harremanak – 10 puntu gehienez.

c) Beste herrialde batzuetako euskal etxeekiko harremanak – 10 puntu gehienez.

2.– Sendotzeko edo indartzeko garrantzia, barnekohesioa bultzatuz (35 puntu gehienez):

a) Erakunde eskatzaileak 2008-2011 lau urterako plana prestatu eta onartzea – 20 puntu gehienez.

b) Bazkide kopurua: puntu 1 100 kideko - 5 puntu gehienez.

c) Programatutako jardueraren maila, aurkeztutako ekitaldien zenbatekoa eta garrantzia kontuan izanik – 10 puntu gehienez.

3.– Erakunde eskatzailearen jardun-ibilbidea - 25 puntu gehienez.

a) Jarduerak kanpoan duen garrantzia edo oihartzuna: komunikabideak, publikoa, etab. – 10 puntu gehienez.

b) Jarduerak aurrera eramateko azpiegituren egokitasun maila (egoitza, web orria, etab.) – 5 puntu gehienez.

c) Azken urterako jardun-kurba – 10 puntu gehienez.

Las solicitudes se dirigirán y remitirán a la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, Secretaría General de Acción Exterior, c/ Navarra, número 2, 01007 Vitoria-Gasteiz, o bien a las Delegaciones de Euskadi, en aquellos países en los que existan.

También podrán presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 28 de febrero de 2011.

***Sexto***.– Criterios de valoración y selección.

La Comisión de Evaluación, prevista en el artículo 11 del Decreto 50/2008, de 18 de marzo, en el ejercicio de su tarea de valoración y selección, tendrá en consideración los siguientes criterios:

A) Para gastos corrientes y organización de actividades (Capítulo IV):

1.– Potenciación de las relaciones sociales, económicas y culturales con el País Vasco y con las Colectividades Vascas en el exterior, de acuerdo con el Plan Cuatrienal aprobado por el Consejo Asesor (hasta 30 puntos):

a) Relaciones con Centros Vascos del entorno – máx. 10 puntos.

b) Relaciones con el País Vasco – máx. 10 puntos.

c) Relaciones con centros vascos de otros países – máx. 10 puntos.

2.– Importancia para la consolidación y/o crecimiento, favoreciendo su cohesión interna (hasta 35 puntos):

a) Elaboración y aprobación por la entidad de un Plan Cuatrienal 2008-2011 – máx. 20 puntos.

b) Número de socios: 1 punto por cada 100 socios - máx. 5 puntos.

c) Nivel de actividad programada, en función del número e importancia de las actividades presentadas – máx. 10 puntos.

3.– Trayectoria de actividades de la entidad solicitante (hasta 25 puntos).

a) Trascendencia o proyección exterior de la actividad: medios de comunicación, público al que llegan, etc. – máx. 10 puntos.

b) Adecuación de las infraestructuras (sede, web, etc.) para acometer las actividades – máx. 5 puntos.

c) Curva de actividad de los últimos años – máx. 10 puntos.

4.– Aurrera eramango diren programa, ekintza edo jardunen genero-ikuspuntua (10 puntu gehienez).

a) Emakumeen parte hartzea zuzendaritza batzordeetan berdintasun baldintzetan – 5 puntu gehienez.

b) Diskriminazio positiboko jardunak – 5 puntu gehienez.

B) Azpiegitura eta ekipamendu gastuetarako (VII. kapitulua):

1.– Sendotzeko eta/edo handitzeko garrantzia - 30 puntu gehienez).

a) Erakunde eskatzaileak 2008-2011 lau urterako plana prestatu eta onartzea– 10 puntu gehienez.

b) Bazkide kopurua: puntu 1 100 kideko – 5 puntu gehienez.

c) Ekitaldiak eta difusio kulturala – 5 puntu gehienez.

d) Hartzen duen eremu geografikoaren garrantzia: herria, hiria, eskualdea, herrialdea – 5 puntu gehienez.

e) Presazko konponketak eta martxan dauden obra edo ekipamendu proiektuak – 5 puntu gehienez.

2.– Aurkeztutako proiektuaren bideragarritasuna (35 puntu gehienez).

a) Ibilbide ekonomikoa ekipamendu eta obretan, kontuan izanik aurreko urteetako espedienteen justifikazio maila – 10 puntu gehienez.

b) Norbere baliabideak – 15 puntu gehienez, honen arabera banatuta (ehunekoak zenbaki oso hurbilenera borobilduko dira):

– % 0-25 bitarteko ekarpena - 0 eta 3 puntu artean.

– % 26-50 bitarteko ekarpena - 4 eta 7 puntu artean.

– % 51-75 bitarteko ekarpena - 8 eta 11 puntu artean.

– % 76-100 bitarteko ekarpena - 12 eta 15 puntu artean.

c) Egoitza mota: jabegoan - 10 puntu edo alokairuan - 5 puntu.

3.– Proiektuaren premia eta egokitasuna - 35 puntu gehienez.

a) Obra edo ekipamenduaren premia maila – 20 puntu gehienez.

b) Premia horri aurre egiteko, aurrekontuaren egokitasun maila, aurrekontuak duen oreka baloratuz euskal etxeak oro har duen garrantziaren arabera – 15 puntu gehienez.

***Zazpigarrena***.– Ebaluazio Batzordea.

Martxoaren 18ko 50/2008 Dekretuaren 11. artikuluan aurreikusitako ebaluazio batzordeak honako kide hauek izango ditu:

4.– Perspectiva de género en los programas, actividades o acciones a desarrollar (hasta 10 puntos).

a) Participación de las mujeres en las Juntas Directivas en condiciones de igualdad – máx. 5 puntos.

b) Acciones de discriminación positiva – máx. 5 puntos.

B) Para gastos de infraestructura y equipamiento (Capítulo VII):

1.– Importancia para la consolidación y/o crecimiento (hasta 30 puntos).

a) Elaboración y aprobación por la entidad de un Plan Cuatrienal 2008-2011 – máx. 10 puntos.

b) Número de socios: 1 punto por cada 100 socios – máx. 5 puntos.

c) Actividades y difusión cultural – máx. 5 puntos.

d) Importancia del área geográfica de influencia: pueblo, ciudad, región, país – máx. 5 puntos.

e) Arreglos urgentes y proyectos de obras o equipamientos en marcha – máx. 5 puntos.

2.– Viabilidad del proyecto presentado (hasta 35 puntos).

a) Trayectoria económica en equipamientos y obras, teniendo en cuenta la justificación de expedientes anteriores – máx. 10 puntos.

b) Recursos propios – máx. 15 puntos, asignados a uno de los siguientes epígrafes (los porcentajes se redondearán al entero más próximo):

– Aportación de 0-25% - entre 0 y 3 puntos.

– Aportación de 26-50% - entre 4 y 7 puntos.

– Aportación de 51-75% - entre 8 y 11 puntos.

– Aportación de 76-100% - entre 12 y 15 puntos.

c) Tipo de sede: en propiedad (10 puntos) o en alquiler (5 puntos).

3.– Grado de necesidad y adecuación del proyecto (hasta 35 puntos).

a) Grado de necesidad de la obra o equipamiento – máx. 20 puntos.

b) Grado de adecuación del presupuesto para cubrir esa necesidad, valorando el equilibrio del presupuesto respecto a la importancia relativa del centro – máx. 15 puntos.

***Séptimo***.– Comisión de Evaluación.

La Comisión de Evaluación prevista en el artículo 11 del Decreto 50/2008, de 18 de marzo, estará conformada por los siguientes miembros:

– Julián Celaya Loyola jauna, Kanpoan diren Euskal Herritarrentzako eta Gizataldeentzako zuzendaria, batzordeburua.

– Andoni Martín Arce jauna, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusikoa, bokala.

– Benan Oregi Iñurrieta jauna, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusikoa, bokala.

– María Isabel Etxabarria Pérez andrea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusikoa, batzordearen idazkaria.

***Zortzigarrena***.– Prozeduraren ebazpena.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak deialdia ebatziko du ebaluaketa batzordeak proposatutakoaren arabera.

***Bederatzigarrena***.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Erakunde onuradunek dirulaguntza jaso duen ekintzak sortutako gastuak justifikatzeko agiriak errazago aurkez ditzaten, eta ahal den neurrian erakunde horiei argibideak eskatzen ibili behar ez izateko eta esleitutako diru-laguntzaren azkeneko ordainketa ez atzeratzeko, informazio-orri baten eredua jaso da II. eranskinean; hor adierazi beharko dira aurkeztutako gastuen faktura eta frogagiriak, behar bezala zenbakituta, identifikatuta eta sailkatuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakidun Erregelamenduarekin (EE) bat etorriz, laguntza hauek minimis arauaren barruan daude, edozein pertsona fisiko edo juridikori emandako diru-laguntza osoa, hiru ekitaldi fiskaletan zehar, ez baita 200.000 eurokoa baino gehiagokoa. Muga honen azpitik dauden diru-laguntzek ez dute merkataritzan eraginik eta/edo ez dute lehia desitxuratzen eta ondorioz ez dira EEko tratatuaren 1. ataleko 87. artikuluaren eraginpean sartzen.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ebazpen honetan aurreikusita ez dagoenerako, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen martxoaren 18ko 50/2008 Dekretuan eta Herri Administrazioen araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoan, ezarrita dagoena aplikatuko da.

***Bigarrena***.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean.

– D. Julián Celaya Loyola, Director para los Ciudadanos y las Colectividades Vascas en el Exterior, Presidente de la Comisión.

– D. Andoni Martín Arce, de la Secretaría General de Acción Exterior, vocal.

– D. Benan Oregi Iñurrieta, de la Secretaría General de Acción Exterior, vocal.

– Dña. María Isabel Etxabarria Pérez, de la Secretaría General de Acción Exterior, secretaria de la comisión.

***Octavo***.– Resolución del Procedimiento.

El Secretario General de Acción Exterior, a la vista de la propuesta efectuada por la comisión de Evaluación, resolverá la convocatoria.

***Noveno***.– Justificación de la subvención.

Al objeto de facilitar la presentación de la justificación documental de los gastos ocasionados por la ejecución de la actividad subvencionada y evitar en lo posible la petición de aclaraciones que pudieran demorar la materialización del último pago de la subvención concedida, se incorpora, en el anexo II, un modelo de hoja informativa para la inclusión de la relación de las facturas y comprobantes de gasto aportados, debidamente numerados, identificados y clasificados.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

De acuerdo con Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, estas ayudas son calificadas de minimis, puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinada superará los 200.000 euros, durante un periodo de tres ejercicios fiscales. Se considera que por debajo de este límite las ayudas no afectan al comercio y/o no falsean la competencia y por consiguiente no entran dentro del ámbito de aplicación del artículo 87 apartado 1 del Tratado CE.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– En lo no previsto en la presente Resolución, será de aplicación lo dispuesto en el Decreto 50/2008, de 18 de marzo, por el que se regula el régimen de subvenciones a los Centros Vascos-Euskal Etxeak, y en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

***Segunda***.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Secretario General de la Presidencia, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-

Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

***Hirugarrena***.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 15a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

Administrativo del Tribunal Superior de Justicia, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Tercera***.– La presente Resolución surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2010.

El Secretario General de Acción Exterior,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

2011 URTEAN EUSKAL ETXEEN, ETXEON FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO EREDUA

*MODELO DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA CENTRO VASCO, FEDERACIÓN O CONFEDERACIÓN DE CENTROS VASCOS PARA 2011*

1.– Euskal Etxearen Datuak / *Datos del Centro Vasco:*

| | |
|---|---|
| Euskal Etxearen Izena / *Nombre del Centro Vasco*: | |
| Herria/*País*: | |
| Hiria/*Ciudad*: | |

2.– Aurkeztutako dokumentuak / *Documentación presentada*

| | |
|---|---|
| ☐ | Euskal Etxeak diru-laguntza deialdiaren aurreko urteko aurrekontu ekitaldian izan dituen diru-sarreren eta gastuen balantzea / *Balance de ingresos y gastos del Centro Vasco correspondiente al ejercicio presupuestario anterior a la convocatoria de ayudas.* |
| ☐ | Diruz lagundu nahi den programa, ekintza edo jarduera deskribatzen duen txostena. Pertsona fisikoei laguntzeko programetan erabili diren aukeraketa-irizpideak ere zehaztu beharko dira txosten horretan / *Memoria descriptiva del programa, actividad o acción para los que se solicita la ayuda, estableciendo un orden de prioridades.* |
| ☐ | Programa, jarduera edo ekintza aurrera eramateko kostuen estimazioa, tokian tokiko monetan, aurreikusitako irabazi eta gastuak berariaz (azpiegitura edota ekipamendu inbertsioak direnean, profesional aditu batek egindako proiektua eta aurrekontua erantsi beharko dira) / *Estimación, en moneda local, del coste de ejecución del programa, actividad o acción, con expresa mención de los ingresos y gastos previstos (cuando se trate de inversiones en infraestructura y/o equipamiento, habrá de adjuntarse proyecto y presupuesto realizado por profesional competente).* |
| ☐ | Diru-laguntza eskatu duen erakundearen zuzendaritza-organoetan eta erakunde horrek antolatutako ekintzetan emakumeak duen parte-hartzeari buruzko txostena / *Informe sobre la participación de la mujer en las actividades programadas así como su incorporación a los órganos de dirección de la institución solicitante de la subvención.* |
| ☐ | Euskal etxeak diru-laguntza deialdiaren aurreko urteko aurrekontu-ekitaldian egin dituen jardueren txostena / *Memoria de actividades correspondientes al ejercicio presupuestario anterior a la convocatoria de ayudas.* |
| ☐ | Eskatzailearen aitorpena, urtean bertan eta aurreko bi urteetan beste minimis laguntzaren bat jaso duen ala ez adierazteko./ *Declaración por parte del Solicitante acerca de la existencia o no de cualquier otra ayuda de minimis en los dos años anteriores y en el ejercicio en curso.* |

Eskatzaileak ez du ez isun administratibo ez zigor penalik jaso diru-laguntza publikoak eskuratzeko ahalmena kentzen dionik, eta ez dago legalki galarazita hauek jasotzeko / *La entidad solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello.*

Eskabidea egiten duenak ziurtatzen du eskabide honetan adierazitako datuak bat datozela diruz lagundu nahi den euskal etxearen benetako estimazioekin / *Quien emite la solicitud certifica que los datos presentados en esta solicitud se ajustan a estimaciones reales del Centro Vasco para el que se solicita subvención.*

Ordezkari legalaren izena, data, eta sinadura / *Nombre, fecha y firma del o la representante legal:*

II. ERANSKINA

JUSTIFIKATZEKO AURKEZTUTAKO AGIRIEN INFORMAZIO-ORRIA.

EUSKAL ETXEAK DIRU-LAGUNTZA 2011

Euskal etxearen izena:..........................................................................................................................

Esleitutako dirulaguntza (zenbatekoa eurotan): ....................................................................................

IV. kapitulua:.........................................................................................................................................

VII. kapitulua:.......................................................................................................................................

Aurkeztutako agiriak: ...........................................................................................................................

V. kapitulua: .........................................................................................................................................

VII. kapitulua: ......................................................................................................................................

Programa gauzatzeari buruzko txosten zehatza aurkezten da: Bai ☐ Ez ☐

Fakturen eta ziurtagirien zerrendaren zehaztasunak - (kapitulu bakoitzeko kontzeptuka bilduta)

| Kontzeptua | Faktura igorlea | Zenbakia | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

*ANEXO II*

*HOJA INFORMATIVA DE LA OCUMENTACIÓN JUSTIFICATIVA PRESENTADA.*

*SUBVENCION EUSKAL ETXEAK 2011*

*Nombre Euskal Etxea:*..........................................................................................................................

*Subvención adjudicada (importe en euros):* ..........................................................................................

*Capítulo IV:*.........................................................................................................................................

*Capítulo VII:*........................................................................................................................................

*Justificacion que se presenta:*..............................................................................................................

*CapítuloIV:* .........................................................................................................................................

*CapítuloVII:*.........................................................................................................................................

*Se presenta informe detallado ejecución programa: Sí* ☐ *No* ☐

*Detalle de relación de facturas – comprobantes (agrupados por conceptos por cada Capítulo)*

| *Concepto* | *Emisor de factura* | *Número* | *Fecha* | *Importe* |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |